

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Jarduera lizentzia legeztatzea

Udal honek, Martin Ezcurra Villar jaunak eskatuta, jarduera sailkatua legeztatzeko lizentzia eskaerari buruzko espedientea izapidetu du. Eskaera honako jarduera hau legeztatzeari buruzkoa da: 12 hilabetetik beherako gizentzeko 300 txahal (108 AzLU). Kokapena: Orbisoko (Kanpezu) 4. poligonoko 974. lurzatia, Araba. Koordinatuak: X:533.546, Y:4.727.291, USO: 30N. (Erreferentziako espedientea: 2024/4/S04.01.03.11).

Bat etorritik Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 51. artikuluan xedatutakoarekin, informazioa jendaurrean jartzeko epea hasten da, ezarri nahi den jardueraren eraginpean daudela uste dutenek espedientea azter dezaten eta egoki irizitako oharra aurkez ditzaten. Espedientea udaletxe honetako idazkaritzan egongo da ikusgai, bulego orduetan (09:00etatik 14:00etara), hilabetez. Epe horretan, erreklamazioak aurkez daitezke udal erregistroan.

Santikurutze Kanpezu, 2024ko apirilaren 23a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO